

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Barrundiako Udalaren eraikuntzako eta eraisketako hondakinen kudeaketa arautzen duen Ordenantzaren amaierako onarpena

Udal honek, 2017ko irailaren 11ko bilkuran, Barrundiako Udalaren eraikuntzako eta eraisketako hondakinen kudeaketa arautzen duen Ordenantzaren espedienteari hasierako onarpena eman zion. Espediente hori jendeaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartzen da. Beraz, Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak 16.4 artikuluan xedatutakoa betez, argitaratzen da indarrean sar dadin.

Barrundiako Udalaren eraikuntzako eta eraisketako hondakinen kudeaketa arautzen duen ordenantza

ZIOEN AZALPENA

Eraikuntzaren ekoizpen-sektorearen jarduera oparoaren ondoriozko ingurumen-arazoak di-rela eta (hondakinak eta isuriak kontrolik gabe sortzen dira), beharrezkoa da Barrundiako Udalak gure garaiarekin bat datorren erantzun bat ematea: orokorra, parte-hartzailea, teknologikoki aurreratua eta gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-joerekin bat datorrena.

Ingurumena eta garapen iraunkorra babestea etengabe egin beharreko zerbait da administrazio guztientzat: estatukoa, autonomikoa, Europakoa eta tokikoa. Azken hori etengabeko harremanean dago bai herritarrekin bai eragile ekonomikoekin; kasu honetan, eraikuntzako eragile ekonomikoekin. Kezka eta sentsibilitate hori agerian geratzen dira honako funtsezko araudi hauetan.

Spainiako Konstituzioak hau ezartzen du bere 45. artikuluan: guztion eskubidea da giza-banakoaren garapenerako egoki den ingurumena izatea, eta guztion eginbeharra ere bada hori zaintzea. Botere publikoek zainduko dute baliabide natural guztien erabilera arrazionala, bizitza-kalitatea babestu eta hobetzeko, eta ingurumena defendatu eta berritzatzeko, behar-beharrezko den elkartasun kolektiboan oinarrituz. Halaber, norbaitek aurreko paragrafoak xedatu duena hausten badu, legezko mugen barruan horri zehapen penalak ezarriko zaizkio, edo, hala denean, administrazio-zehapenak, bai eta eragindako kaltea konpontzeko betebeharra ere.

EAEko lege-esparruan, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren Lege Organikoak (11.artikulua, 1-a) eta, zehatzago, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren (otsailaren 27ko 3/1998) 3. eta 4. artikuluek aitortzen dute pertsona guztiek dutela ingurumen orekatu, iraunkor eta osasungarri batean bizitzeko eskubidea, baita baliabide naturalez, inguruneaz eta paisaiaz berdintasun-baldintzetan gozatzekoa ere. Halaber, ingurumenaren erabilera arduratsua egiteko betebeharra dute, kaltetu dadila saihesteko eta etorkizuneko belaunaldientzat kontserbatzeko, legeek ezartzen dutenaren arabera. Hau dio 7. artikuluko 3. zenbakiak: udalei dagokie lege honek, toki-araubiderako legeriak eta ingurumenaren sektoreko legeriak aitortutako eskumenak erabiltzea. Azkenik, 87. artikuluan, ingurumenari buruzko udal-ordenantzei buruzkoan, hau dio: toki-erakundeek, ingurumenaren arloan dituzten eskumenak erabiliz, ingurumenerako udal-ordenantzak onartu egin beharko dituzte. Halaber, hondakinen esparruan dituzten eskumenen esparruan, eraikuntza- eta eraipen-hondakinak ekoizteko, edukitzeko, garraiatzeko eta, hala badagokio, dagozkion lekura eramateko baldintzak ezarri ahal izango dituzte, baita finantza-berme bat jartzeko moduak eta horren zenbatekoa ere. Baldintza horiek ezartzeko, kontuan hartu beharko da mota honetako hondakinekin, ahal dela, hau egin beharko dela eta ordena honetan: berrerabili, birziklatu edo beste erabilera bat eman, eta, azken aukera gisa soilik, zabortegira eraman.

Berrikiago, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko Legeak (ekainaren 25eko 4/2015) adierazten duenez, lurzoruen edukiztaile edo jabe diren eta lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazio berriak jarri nahi dituzten pertsona fisiko edo juridikoen oinarrizko betebeharra da lurzorua zaintzea, eta lurzorian substantzia kutsatzaileak egotea saihesteko edo halako substantzien ondorioak txikiagotzeko jarritako prebentzio- eta babes-neurriak hartzea (15. artikulua eta hurrengoak). Halaber, lurzoruaren edukiztaile diren pertsona fisiko edo juridikoek hura berreskuratzeko eta kontrola eta segimendua egiteko neurriak ezarri behar dituzte, lurzoru horren kalitatearen bilakaeraren gaineko eta lurzoruaren kutsadurak edo eraldaketak inguru-neetan izandako eraginaren gaineko datuak lortzeko. Beraz, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak egin diren lekuetan (CNAE kodeen arabera edo inbentariatuta daudenak, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzorien inbentariari buruzko irailaren 30eko 165/2008 Dekretuaren eta horren hurrengo aldaketaren arabera) egiten diren eraikinen edo instalazioen kasuan, nahitaezkoa izango da lurzoruaren kalitateari buruzko adierazpena eskuratzeko edo, gutxienez, azterketa gehigarri bat egitea, eraikuntzarako, berrikuntzarako edo eraikuntza berrirako lizentziak eman aurretik.

Ildo horretan, Europar Batasunak, bere Konstituzioa ezartzen duen itun-proposamenaren II-97 artikuluan (Ingurumenaren babesa), proposatzen du Batasunaren politikak integratu egingo direla eta, garapen iraunkorraren printzipioari jarraikiz, ingurumenaren babes-maila altua eta haren kalitatearen hobekuntza bermatuko dutela. Nabarmentzen dute Batasunaren ingurumen-politikaren helburua dela babes-maila altua ematea, Batasuneko hainbat eskualdetan ikus daitekeen aniztasuna kontuan hartuta. Printzipio hauek izango ditu oinarri: arduraren eta prebentziozko ekintzen printzipioak, ingurumenari eginiko kalteak zuzentzeko printzipioa (ahal dela jatorrian bertan), eta kutsatzen duenak ordaindu behar duela dioen printzipioa.

Egoera protekzionista hori indarrean badago ere, azken hamarkadan jarduera handia egon da eraikuntzaren sektorean, eta ez da beti jasagarria izan ingurumenari dagokionez. Hori dela eta, besteak beste, eraikuntzatik eta eraispentatik ateratako hondakin ugari sortu dira.

Arazo hori konplexua da, hondakinen bolumenarengatik eta horiek tratatzeko eta balioa emateko gabezia handia dagoelako. Isuri horien ingurumen-eraginaren artean, hauek nabarmendu behar dira: lurzoruen eta akuiferoen kutsadura eta paisaiari eginiko kaltea. Horrez gain, beste hondakin eta izurri osasungaitz batzuk ere erakar ditzakete.

Estatuko Administrazioak, problematika honekiko sentikortasuna erakutsiz, gaiari buruzko lege ugari egin ditu azken urteotan, hainbat artikuluko berezituren bidez. Horrez gain, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretua ere egin du, berariaz, gai hau lantzeko (Eraikuntza- eta eraispent-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena). Horrez gain, beste erantzukizun hau ere ezarri zaie kutsatzen dutenei: «Kutsatzen duenak ordaintzen du» eta «kutsatzen duenak ordaintzen eta konpontzen du» printzipioak gehitu dira; azken esaldi horrek Ingurumen Erantzukizunaren Legea (urriaren 23ko 26/2007) laburbiltzen du.

Berrikiago, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008ko azaroaren 19ko 2008/98/CE Zuzentaraua (aurrerantzean, Hondakinen esparru-zuzentaraua) aldatu egin da, Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen Legearen bidez (uztailaren 28ko 22/2011), eta lege horrek, aldi berean, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legea indargabetzen du. Hondakinen eta Lurzoru Kutsatuen Legeak erreferentzia egiten dio esparru juridiko berriaren definizioari, honako alderdi hauetan:

Hazkunde ekonomikoaren eta hondakinen sorreraren artean dagoen lotura etetea ahalbidetzen duten tresnak ematen ditu, arreta berezia eskainiz prebentzioari, honela ulertuta: produktu bat hondakin bihurtu aurretik hartutako neurrien multzoa, substantzia arriskutsuen kopurua eta edukia murrizteko, baita sortutako hondakinek gizakien osasunean eta ingurumenean duten eragina arintzeko ere.

Hierarkiaren printzipioa gehitzen die hondakinen ekoizpen eta kudeaketari, hauek ardatz hartuta: prebentzioa eta hondakinak berrerabiltzeko, birziklatzeko edo beste moduren batera balioa emateko prestaketa (balio energetikoa barne).

Asmoa da Europar Batasuna «birziklapenaren gizarte» bihurtzea, eta klima aldaketaren aurka borroka egiten laguntzea.

Hondakinen politika horien ekoizpen eta kudeaketarako hierarkia-printzipioaren arabera orientatzen du, baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatuz eta hondakinen ekoizpenak eta kudeaketak eragiten dituen kalteak arinduz.

Prebentzio-neurriak eta hondakinen berrerabilera eta birziklapena sustatzen ditu eta, esparru-zuzentarauak ezartzen duenarekin bat etorriz, balioa emateko eragiketa gisa kalifikatzen du etxeko hondakin nahasien errausketa; betiere, energia-eraginkortasun-maila jakin batekin egiten bada.

Hondakinak kudeatzeko jardueren gardentasuna eta eraginkortasuna areagotzea du xede, ingurumenari eta ekonomiari dagokienez.

Hondakinen prebentzioaren eta kudeaketaren berrikuntza sustatzen du, une bakoitzean gizartearentzako balio gehien duten konponbideak garatzea ahalbidetzeko. Horrek, zalantzarik gabe, sektore honi lotutako berotegi-efektuko gasen isuriak murrizten lagunduko du, eta klima babesten.

Horrez gain, I. tituluko 12. artikulua (Administrazioaren eskumenak) eta xedapen iragankorretatik bigarrenak (Toki-erakundearen ordena) adierazten duten moduan, hainbat administrazio publikok esku hartzen dute hondakinen kudeaketan; hori dela eta, administrazio bakoitzaren eskumenak zehaztu dira eta aurreko Legean zehaztutako eskumenen banaketa argitu da, bereziki toki-erakundeei dagokienez. Horiek, beren ordenantzen bidez, beren gain hartu dituzten hondakinak entregatzeko baldintzak ezar ditzakete.

Halaber, otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuak (Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzekoa) bere 6. artikuluan eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena, edukitzea eta kudeaketaren kontrola autonomia-erkidegoei eta toki erakundeei esleitzen die, eta bien arteko lankidetzak eta elkarren arteko laguntza sustatzen ditu. Bestalde, 105/2008 EDak, bere lehenengo xedapen gehigarrian, ED horrek garatutako EEHen ekoizleak eta edukitzaileen betebeharrak (4. eta 5. artikulua) salbuesten ditu etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txiki guztiak, horiek toki-erakundeek euren udal-ordenantzetan ezarritako baldintzen pean egon behar baitute.

EAEn, ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuak (eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena) aipatzen du nahitaezkoa dela lizentziak emateko prozedurak edo baimena behar duten jarduketak lotzea eraikuntza-hondakinen kudeaketarekin, eta kudeaketa hori behar bezala egiten dela bermatzeko fidantzak ezarri behar direla (5. artikulua). Horrez gain, dekretuak aipatzen du udal-ordenantza bat beharrezkoa dela, obra txikien ondorioz sortutako eraikuntza- eta eraispen-hondakinen sortzaile eta edukitzaileen betebeharrak zehazteko (9. artikulua). Azkenik, dekretu horren azken hiru xedapenetan ordenantza zehazteko eta eraikuntza- eta eraispen-hondakinarentzako udal-azpiegiturak jartzeko epeak daude ezarrita.

Hirigintzaren ikuspegitik begiraturik, ordenantza honek, Lurzoruari eta Hirigintzaren Legearekin (ekainaren 30eko 2/2006) bat etorriz, hirigintza-garapen iraunkorreko printzipiorantz bideratzeko arauak ezartzen ditu (hiri-ereduei eta eraikuntza-garapenei aplikatuta). Hori dela eta, 207. artikuluan hirigintza-lizentzia behar duten jarduerak ezartzen ditu, eta 75. artikuluan hirigintza-antolamenduaren osagarri diren udal-ordenantzak. Azken horiek hirigintza-lizentzia behar duten eraikuntza- eta eraispen-jarduketak guztien ingurumen-eraginak murrizten eta iraunkortasun-helburuak betetzen laguntzen duten irizpideak ezarriko dituzte, beren eskumenei eta toki-araubidearen legeriari jarraikiz.

Nabarmendu behar da historikoki toki-erakundeek halako hondakinen kudeaketan eta tratamenduan izan duten zeregina. Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen (7/1985) 25. artikuluaekin bat etorriz, etengabeko ahalegina egin da ingurumenaren arloko udal-ordenantzak bertako helburuetara egokitzeko. Halaber, duela gutxiko Euskadiko Toki

Erakundeei buruzko Legeak (2/2016) bere 17.1 artikuluan aitortzen du udalek eskumena dutela hiri- edo udal-hondakin solidoen bilketa- eta tratamendu-zerbitzuak antolatzeko, kudeatzeko, emateko eta kontrolatzeko, baita hiri- edo udal-hondakinen ekoizpena murrizteko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzeko ere.

Araudi-esparru honetan, Barrundiako Udalak bere gain hartu du legegintza-ekimena, eta eraikuntza- eta eraipen-hondakinei buruzko ordenantza hau onets dadila proposatu du, ingurumenari eragindako kalteak murriztea helburu duena. Ordenantza horren xedea da, halaber, EEHen sorrera ahalik eta gehien murrizteko helburuak lortzea, horiek ekoizteko eta kudeatzeko gutxieneko baldintzak ezarri, hondakin horiek prebenitzeko, berrerabiltzeko, birziklatzeko, horiei balioa emateko eta deuseztatu beharrekoak ondo tratatzeko. Kudeaketa-eredu hori 2016-2022rako Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Planean (PEMAR) dago jasota, eta 2014-2020rako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planean ezarritako helburuak lortu ahal izateko tresna juridikoa ere bada.

EEHen kudeaketa arautzen duen udal-ordenantzak Udalari lagunduko dio obra handi orok izan behar duen Hondakinak Kudeaketaren Azterlanean zehaztutako hondakinak tratatzeko eta bereizteko helburuen betetze-maila kontrolatzen eta, bereziki, obra txikiak arautzen. Horrek ahalbidetuko du iraunkortasunaren aldeko kultura bat sortzea udalerrian, eta eraikuntza- eta eraipen jardueren ondorioz sortutako hondakin ez-arriskutsuak murriztea.

Aintzat hartu behar da ordenantzak arreta berezia eskaintzen diela hondakinak tratamenduari eta, horrez gain, sustatzaileek eta teknikariek jardunbide, neurri eta soluzio tekniko egokiak har ditzatela sustatzen du, energia gutxiago erabiltzeko, hondakinak barnean nahiz kanpoan berrerabiltzeko eta EEHei balioa emateko. Horretarako, fidantza-kanon bereziak ezartzen ditu tratamendu eta obra mota bakoitzarentzat.

Hala, ordenantza hau ezartzearen ondorioz, gizartean ezarri nahi diren garapen iraunkorra eta ingurumen-kalteen murrizketa lortzeko neurri eraginkor eta prebentiboak ezartzea ahalbidetuko da. Horretarako, udalerrian egiten diren eraikuntza-sektoreko jarduketak kontrolatzeko eta fiskalizatzeko neurriak hartuko dira.

Jarduketa- eta prebentzio-estrategia honen asmoa da hondakinak kudeatzeko prozesuan parte hartzen duten eragile guztiak (ekoizleak, edukitzaileak, kudeatzaileak eta garraiatzaileak) aktiboki inplikatzeko, honako helburu hauekin: EEHen sorrera eta kudeaketa hobeto kontrolatzea, EEHak jatorrian sailkatzeko jardunbideak zabaltzea obra handi nahiz txikietan, EEHen sorrera jatorrian murriztea, obran sortutako EEH arriskutsuak jatorrian bereiztea eta horiek hondakinak legeriaren arabera kudeatzea, EEHen kontrolik gabeko isuria desagerraraztea, EEHak baimendutako kudeatzaileak tratatzea (legediak ezartzen duen moduan), sortzen diren EEHen berrerabilera eta birziklapena (baita horiei balioa emateko beste modu batzuk ere) sustatzea eta agregakin birziklatuen kontsumoa sustatzea.

Ordenantzak, arautzeko ahalmena duela aprobetxatuz, bide publikoaren okupazioari buruzko irizpideak bateratzen ditu; izan ere, oro har, espazio horretan gauzatzen dira hondakinak kudeatzeko lan gehienak. Hori dela eta, uste dugu lan horiek behar bezala arautzeak obraren ondoko bizilagunei eragindako eragozpenak murriztea ekarriko duela, eta tokiko administrazioari jokabide arduragabeen zaintza- eta zehapen-ahalmena egokiago baliatzea ahalbidetuko diola. Horretarako, irizpide horiek guneko publiko horien erabilera, berritzea eta garbiketa dituzte aztergai.

Laburbilduz, EEHen kudeaketa arautzen duen udal-ordenantza bost bloke nagusitan dago banatuta: Xedapen Orokorrak, EEHen kudeaketa, bide publikoaren okupazioa eta edukiontzien erabilera, baimenak, eta zehapen-araubidea.

Ordenantza honetan ezarritakoa aplikatzeak sentsibilizazio eta interes handiagoa piztuko du eragileen artean EEHak kudeatzeko moduari, horien tratamenduari eta horiek erabiltzeko alternatibei buruz. Horrek guztiak pentsamolde berri bat sortzea eta ingurumenarekiko

konprometituago egotea ekarriko du. Konpromiso horiek eraginkorrak izango dira, diskurtso erretoriko hutsaletatik urrunduz. Horretarako, beharrezkotzat jotzen da informazio-kanpainak abian jartzea, honako hauen berri emateko: ordenantzaren irismena, eta eraikuntzaren iraunkortasunaren kultura sustatzearekin gero eta konpromiso handiagoa duten eta gero eta eraginkorrakoak diren politikak hartzeak dakartzan gizarte- eta ingurumen-onurak (eta ez horrenbeste administrazio publikoak herritarren aurrean duen polizia-ekintza gisa).

Beraz, ordenantza honen helburua da obra txiki eta handietan sortzen diren eraikuntza- eta eraispen-hondakin guztien ingurumen-eragina murrizteko lege-betebeharra berariaz arautzea udal-barruti honetan (112/2012 Dekretuak arautzen ez dituen alderdi guztietan). Hala, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizleei dagokie horiek behar bezala tratatuko direla bermatzea eta alternatibak aplikatzen saiatzea, sortutako hondakinak berrerabiltzeko, birziklatzeko eta horiei balioa emateko. Hartara, ingurumena behar bezala babesten dela bermatuko da, eta udalerriko eraikuntza-jarduera modu iraunkorrean gauzatzen lagunduko dute.

Azaldutako guztiagatik, ordenantza hau idatzi da, legeak ezarritakoa betetzeko, udal-administrazioaren aldetik EEHak modu eraginkorrean kudeatzeko modu bat sustatzeko eta hondakinen ezaugarriak eta tratamendua hobetzeko.

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Ordenantza honen xedea da eraispen-, eraikuntza- eta indusketa-obretako lurren, hondakinen eta obra-hondarren kudeaketarako ekintzak arautzea, hondakin hauek natura-baliabideetan, ingurumenean eta bizi kalitatean eragin ditzaketan kalteak saihesteko.

2. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, definizio hauek ezarri dira. Horretarako, hauetan zehaztutakoak izan dira kontuan: 22/2011, Legea, uztailaren 28koa, Hondakin eta Lurzoru kutsatuei buruzkoa; 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen produkzioa eta kudeaketa arautzen dituen;

Hondakinak Kudeatzeko Estatutuko Esparru Plana 2016-2022 (PEMAR). Eta zehatzago: 3/1998 Legea Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoa; 4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzekoa; 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzekoa; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana 2014-2020.

Eraikuntza- eta eraispen-obra Jarduera hau izaten da:

1º. Hondeaketa-, eraikuntza-, konponketa-, zaharberritze-, birgaikuntza-, mantentze-, eraispen- eta dekonstrukzio-lanak egitea (eraispen selektiboa), ondasun higiezinetan (egoitza-, industria- nahiz zerbitzu-erabilerarako) eta ingeniari-tza zibileko azpiegituretan (errepideak, aireportuak, portuak, trenbideak, obra hidraulikoak, hirigintza-azpiegiturek, parkeak, kirol- eta aisialdi-instalazioak, etab.).

2º. Lursailaren edo lurpearen forma edo substantzia aldatuko duten obrak egitea; hala nola indusketak, dragatze-lanak, zundaketak, prospekzioak, injekzioak, hondartzak birsortzeko lanak, urbanizazioak edo antzekoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren martxoaren 15eko 2006/21/EE Zuzentaraua (industriako erazketa-hondakinen kudeaketari buruzkoa) eta Meategiei buruzko Legea (22/1973) ezar dakiekeen jarduerak izan ezik.

Obraren zatizat joko dira horri bakarrik zerbitzu ematen dioten instalazio guztiak, baldin eta hori muntatzeko eta desmuntatzeko lanak obrek irauten duten bitartean edo horiek amaitzean egiten badira; hauek dira, besteak beste:

- Birrinketa-instalazioak.
- Hormigoia, legar-zementua edo lur-zementua egiteko instalazioak.
- Hormigoizko aurrefabrikatuen instalazioak.

- Nahasketa bituminosoak egiteko instalazioak.
- Kofratuak egiteko tailerrak.
- Burdina egiteko eta manipulatzeko tailerrak.
- Materialen biltegiak eta obrako hondakinen biltegiak.
- Obrako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak tratatzeko instalazioak.

Eraikuntza txikiko edo etxeko konponketak egiteko obra

Etxe partikular bat, denda, bulegoa edo zerbitzuen sektoreko higiezinara eraikitze edo/edo eraisteko obra, teknika xumekoa, eraikitze gutxi duena eta ekonomikoki txikia, bolumenean, erabileran, denen erabilerako instalazioetan edo etxebizitza eta lokal kopuruan aldaketarik eragingo ez duena, eta titulaturako profesionalak sinatutako proiekturik behar ez duena.

Obra handiak:

Aurreko ataleko definizioan sartzen ez diren eraikuntza- edo eraispén-obrak.

Kutsatuta egon daitezkeen eraikinak edo instalazioak:

Lurzorua kutsa dezakeen jardueraren bat barne hartzen duten eraikinak edo instalazioak, lurzoru kutsatuei buruzko araudiak jardura kutsatzailatzat jotzen duena kontuan izanda. Eraikin horiek barne hartzen dituzten lekuak ager daitezke edo ez lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak barne hartzen dituzten edo hartu izan dituzten lurzoruen Euskal Autonomia Erkidegoko inbentarioan.

Hondakina: edukizailak utzi egiten duen edo uzteko asmoa duen edozein substantzia edo objektu, baldin eta Hondakinei buruzko Legearen (apirilaren 21eko 10/1998) I. eranskinak barne hartzen zituen kategorietako batean sartuta badago.

Edonola ere, hondakintzat hartuko dira Hondakinen Europako Zerrendan (HEZ) agertzen direnak. Ez dira hondakinak izango: ekoizpen-, eraldatze- edo kontsumo-prozesu baten ondorioz sortutako objektu edo substantziak, baldin eta ez badira haien jatorrizko propietateak eta ezaugarriak aldatu, eta zuzenean produktu edo lehengai gisa erabiltzen badira, haiei balioa emateko edo deuseztatzeko lanik egin ez bada eta giza-osasuna edo ingurumena kaltetzen ez badute.

Etxeko hondakinak: etxeetan sortutako hondakinak, etxeko jardueren ondorioz. Etxeko hondakinak dira, baita ere, zerbitzuetan eta industrietan sortutakoak izan arren, haien antzeko ezaugarriak dituztenak. Kategoria honetan sartzen dira, halaber, etxeetan sortzen diren honako hondakin hauek: gailu elektriko eta elektronikoak, arropa, pilak, metagailuak, altzariak eta tresnak; baita etxeko eraikuntza- eta konponketa-obra txikietatik sortutako hondakinak ere.

Horrez gain, etxeko hondakinak izango dira bide publikoak, berdeguneak, aisialdirako gu- neak eta hondartzak garbitzetik sortzen direnak, etxeko animalia hilak eta abandonatutako ibilgailuak.

Merkataritzako hondakinak: merkataritza-jardueran bertan sortutako hondakinak: handi- zkakoa nahiz txikiak, jatetxe eta tabernak, bulegoak, merkatuak eta gainerako zerbitzuak.

Hiri- edo udal-hondakinak: hauek dira hiri- edo udal-hondakinak:

1. Etxe partikularretan, dendetan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortutakoak.
2. Arriskutsutzat jotzen ez direnak eta haien ezaugarri edo osagaiengatik aurreko leku edo jardueretan sortutako antzekoak direnak.

Industriako hondakinak: fabrikazio-, eraldatze-, erabilera-, kontsumo-, garbiketa- edo man- tentze-lanen ondorioz sortutako hondakinak, baldin eta industria-jardueran sortzen badira. Ez dira hemen sartzen azaroaren 15eko 34/2007 Legean araututako atmosferarako emisioak.

Hondakin arriskutsuak: 22/2011 Legearen III. eranskinean zerrendatutako ezaugarri arriskutsuren bat edo gehiago dituen hondakina, edo Gobernuak halakotzat jo dezakeen beste edozein, Europako araudian edo Espainiak parte hartzen duen nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoarekin bat etorritik. Arriskutsutzat joko dira, halaber, hondakin arriskutsuak barnean izan dituzten ontziak. Horrez gain, arriskutsutzat joko dira ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuak onetsitako hondakin arriskutsuen zerrendan agertzen direnak, eta horiek barnean izan dituzten ontziak. Bestalde, hondakin arriskutsuak izango dira Erkidegoko araudian hala ezarrita daudenak eta Gobernuak halakotzat jo ditzakeenak, bat etorritik Europako araudian eta Espainiak parte hartzen duen nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoarekin. Hondakin arriskutsuak dira, halaber, hondakin arriskutsuen zerrendan agertzen ez badira ere, halakotzat jotzen direnak, ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik.

Hondakin bizigabea: eraldaketa fisiko, kimiko edo biologiko esanguratsurik izaten ez duen arriskurik gabeko hondakina; ez da disolbagarria, ezta jangarria ere, ez du erreakzio fisikorik, ez kimikorik, ezta bestelakorik ere, ez da biodegradagarria, ez du harremanetan egon daitekeen beste materietan eragin negatiborik, eta ondorioz, ez du ingurumena kutsatzen, ezta gizakien osasuna kaltetzen ere. Erabateko lixibiabilitatea, hondakinaren kutsagarri-edukia eta lixibiatuaren ekotoxikotasuna ezingo dira esanguratsuak izan eta, bereziki, ezingo dira arriskutsuak izan azaleko edo lurpeko uren kalitatearentzat.

Eraikuntza eta eraispen hondakina (EEH): Uztailaren 28ko 22/2011 Legearen 3.a) artikuluan dagoen «hondakin» definizioaren arabera, eraikuntza- edo eraispen-obra batean sortzen den substantzia edo objektu oro, obra txikietan eta etxeko konponketetan sortzen direnak barne.

Lurzoru kutsatua: jatorri antropiko eraldaketaren bat jasan duen lurzoru oro, haren ezaugarri kimikoei dagokienez, baldin eta eraldaketa hori ez badator bat bere funtzioekin, egungo erabilerarako edo erabilera aldatuta arriskutsua izan daitekeenean giza osasunerako edo ingurumenarentzat, eta hala zehaztu duenean Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-organokoak, bat etorritik Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko Legearen (4/2015) araututako lurzoruaren kalitatea zehazteko prozedurarekin.

Konposta: bereizita jaso diren hondakin biodegradagarrien tratamendu biologiko, aerobio eta termofiloaren ondorioz lortutako medeapen organikoa.

Hondakinen ekoizlea: hondakinen osaeran edo izaeran aldaketak eragiten dituzten alde aurreko tratamenduak, nahasketak edo bestelako eragiketak egiten dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko (hondakinen hasierako ekoizlea). Kontrol- eta ikuskaritza-zerbitzuek mugako instalazioetan kendutako salgaien kasuan, salgaien ordezkaria joko da hondakinen ekoizletzat, edo horiek inportatzen edo esportatzen duena.

Eraikuntza eta eraispeneko hondakinen ekoizlea:

1. Eraikuntza- edo eraispen-obra bateko hirigintzako lizentziaren titularra den pertsona fisikoa edo juridikoa.
2. Hondakinen osaeran edo izaeran aldaketak eragiten dituzten tratamenduak, nahasketak edo bestelako eragiketak egiten dituen pertsona fisikoa edo juridikoa.
3. Europar Batasuneko estatu kideetako edozeinetan eraikuntza- eta eraispen-hondakinak inportatzen edo erosten dituena.

Eraikuntza eta eraispeneko hondakinen edukitzailea: eraikuntza eta eraispeneko hondakinak eduki baina hondakinen kudeatzaile izaerarik ez duen pertsona fisikoa edo juridikoa. Hondakin horiek dituen eraikuntza- edo eraispen-obra egin duen pertsona fisikoa edo juridikoa izango da; hau da, eraikitzailea, azpikontratistak edo langile autonomoak. Dena dela, besteren kontura lanean ari direnak ez dira eraikuntza eta eraispeneko hondakinen edukitzailetzat joko.

Negoizaitzailea: bere kontura hondakinak erosten eta saltzen dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko, hondakinak fisikoki eskuratzen ez dituzten negoziatzaileak barne.

Agentea: beste batzuen enkarguz hondakinei balioa emateko edo horiek deuseztatzeko lanak antolatzen dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko, hondakinak fisikoki eskuratzen ez dituzten agenteak barne.

Baimendutako kudeatzailea: ordenantza honen ondoreetarako, eskumendun erakundeak aurrez baimendutako pertsona fisiko edo juridikoa eta kudeaketan sartzen den edozein eragiketa egiten duena, ekoizlea izan edo ez izan. EEHen kudeatzaileek dagokion Erregistroan izena emanda izan behar dute.

Baimendutako garraiolaria: dagokion erregistroan behar bezala izena emandako pertsona fisiko edo juridikoa; EEHak bildu, garraiatu eta baimendutako kudeatzailearen instalazioetan jarriko dituena.

Transferentzia-instalazioak: eraikuntzako hondakinak behin-behinean uzteko instalazioak dira, hondakin horiek urrun dauden instalazioetan tratatu edo deuseztatu behar direnean. Hauen zeregin nagusia da hondakinak pilatzea eta garraio-gastuak merketzea, batzuetan hondakinen zatiak hautatu eta sailkatzeko prozesu txikiagoren bat ere egiten den arren, tratamendu-instalazioetarako eta hondakindegietara igorritako EEHen ezaugarriak hobetu asmoz.

Tratamendu-instalazioak: EEHak tratatzeko instalazioak dira eta hondakin hauek dituzten zatiak aukeratu, sailkatu eta balioztatu egin behar izaten dituzte, zuzenean erabiltzeko produktuak lortzeko edo balioztatu edo birziklatu daitezkeen beste tratamendu bat egiteko hondakinak lortzeko eta horrelakorik ezin bada, hondakindegian deuseztatzeko. Finkoak edo mugikorak izan daitezke:

Instalazio finkoak: inguru itxi batean dauden birziklatzeko instalazioak dira, administrazioaren baimena dute EEHak birziklatzeko; birziklatze-lana egiteko dituzten makinak (batez ere txirbila egiteko ekipoak) finkoak dira eta ez dira kokatuta dauden tokitik kanpo erabiltzen.

Instalazio mugikorak: makinak (administrazioaren baimena behar dute) eta birziklatzeko ekipo mugikorak dira, obretara joaten dira jatorrian birziklatzeko edo balorizazio- eta deuseztatze-zentroetara joaten dira, zentro horietan behin behinean aritzeko.

Hondakindegi kontrolatuak: EEHak behin betirako uzteko instalazioak dira (hondakindegien legedian ezarritako epeen gainetik) eta 1481/2001 EDko ezar dakizkiekeen baldintzak bete behar dituzte.

Baimendutako kudeatzailea: ordenantza honen ondoreetarako, eskumendun erakundeak aurrez baimendutako pertsona fisiko edo juridikoa eta kudeaketan sartzen den edozein eragiketa egiten duena, ekoizlea izan edo ez izan. EEHen kudeatzaileek dagokion Erregistroan izena emanda izan behar dute.

Udal-eskumeneko puntu garbia: etxeko hondakin jakin batzuk uzteko, bereizteko eta biltzeko tokiko titulartasun publikoko instalazioak. Bertan utzitako hondakinak tratamendu-instalazioetara eramaten dira, ondo kudeatzen direla bermatzeko, horien balorizazioa hobetuz.

Garbigune edo hondakinen biltegi alternatibo ere esaten zaie Euskal Autonomia Erkidegoan.

Prebentzioa: substantzia, material edo produktu bat eratzeko eta diseinatzeko, ekoizteko, banatzeko eta kontsumitzeko fasean hartutako neurriak, hauek murrizteko:

Hondakinen kopurua, baita produktuak berrerabiliz edo horien bizona erabilgarria luzatuz ere.

Sortutako hondakinek ingurumenean eta giza osasunean dituzten ondorio kaltegarriak, materialen eta energiaren aurrekia barne.

Material eta produktuek dituzten substantzia kaltegarriak.

Aldez aurreko tratamendua: eraikuntza eta eraispeneko hondakinen ezaugarriak aldatzen dituen prozesu fisikoa, termikoa, kimikoa edo biologikoa, sailkapena barne; hondakin horien bolumena edo arriskugarritasuna murrizten du, manipulatzeko errazagoa da, balioztatzeko potentziala hazten zaio edo hondakindegian izan dezakeen jokaera hobetzen du.

Biltegitratzea: balorizatzeko-prozesuaren aurreko aldi baterako biltegitratzea; gehienez sei hilabete iraungo du.

Berreskuratzea: hondakinek barne hartzen dituzten materialak edo substantziak aprobetxatzea ahalbidetzen duen prozedura oro.

Berrerabiltzeko prestaketa: balorazioa honetan datza: hondakin bilakatu diren produktuak edo osagaiak egiaztatzea, garbitzea edo konpontzea, alde aurreko eraldaketarik gabe berrerabili ahal izan daitezten.

Berrerabiltzea: birsortutako material bat hasiera batean zuten xede bererako erabiltzea; eta hondakin ez diren produktuak edo horien osagaiak berriro erabiltzea, hasiera baten zuten xede bererako.

Birziklatzea: hondakinen materialak berriro produktu, material edo substantzia bilakatzeko balorizazio-lanak, horien xedea hasierako bera nahiz beste bat izan. Material organikoaren eraldaketa barne hartzen du, baina ez balorizazio energetikoa, ezta erregai gisa edo betetze-lanetarako erabiliko diren materialen eraldaketa ere. Hondakinak eraldatzea, ekoizpen-prozesu baten barnean, hasieran zuten xederako edo beste xede batzuetarako. Hemen sartzen dira konposta eta biometanizazioa, baina ez energia berreskuratzearen errausketa.

Hondakindegian uzteko tratamendua: hondakinen ezaugarriak aldatzen dituzten prozesu fisiko, termiko, kimiko edo biologikoak, sailkapena barne, horien bolumena eta arriskua murrizteko eta errazago manipulatzeko eta balorizatzeko.

Deuseztatzea: balorizazioa ez den beste edozein eragiketa, baita horren zeharkako ondorioa substantziak edo energia aprobetxatzea bada ere. 22/2011 Legearen I. eranskinean deuseztatze-eragiketen zerrenda bat dator (ez da zehatza). Hondakinak kontrolatuta isurtzea edo osorik nahiz partzialki deuseztatzea helburu duen prozedura oro, baldin eta giza osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurumena kaltetu dezaketen metodorik erabili gabe egiten bada. Kontzeptu honetan sartzen dira ekainaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren I. eranskineko I. taulako A zatian zerrendatutako deuseztatze-eragiketak.

Balorazioa: emaitza nagusi gisa hondakinak helburu erabilgarria izatea duen edozein eragiketa. Horren bidez, hasiera batean funtzio zehatz baterako erabiliko liratekeen material batzuk ordeztu egingo dira, edo hondakina funtzio hori betetzeko prestatuko da, instalazioan edo ekonomian oro har. 22/2011 Legearen II. eranskinean deuseztatze-eragiketen zerrenda bat dator (ez da zehatza).

EEHen balorazioa: EEHen barne hartzen dituzten baliabideak aprobetxatzea ahalbidetzen duen prozedura oro (material betegarri gisa erabiltzea barne), giza osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurumena kaltetu dezaketen metodorik erabili gabe.

Balioztatze-instalazioa: EEHetan dauden baliabideak jasotzea eta berreskuratzea edo eraldatzea xede duten instalazioak, dagozkien prozesu fisiko eta teknikoak aplikatuz.

Bilketa: hondakinak pilatzea, sailkatzea eta hasiera batean biltegitratzea, tratamendu-instalazio batera eramateko.

Bilketa berezia: bilketa mota honetan, hondakinen fluxu bat bereizi egiten da, bere ezaugarrien arabera, tratamendu espezifiko emateko.

Obretako edukiontzia: ordenantza honetarako, «obretako edukiontzia» izango dira garraio berezirako ibilgailuetan mekanikoki kargatzeko eta deskargatzeko bereziki diseinatutako ontzi arautuak, hondakin-materialak biltzea xede dutenak.

Lehen okupazio edo erabilera: eraikin berrien kasuan, eraikinak, urbanizazioak, eraikuntzak edo instalazioak erabiltzen hasteko baimena; zati baten erreforma, erreforma osoa, finkapena eta zaharberritze lanak egin zaizkien eraikin, eraikuntza unitate eta lokalen kasuan eta erabilera aldatu zaienetan edo erabilera horien intentsitatea aldatu zaienetan ere erabiltzen hasteko baimen hau behar izaten da.

3. artikulua. Aplikazio-eremua

Ordenantza honen eremuan sartzen dira 2. artikuluan definitutako hondakinak eta jarduerak. Ordenantza Barrundiako eraikuntza eta eraispenerako hondakinak sortzeko, garraiatzeko eta kudeatzeko jarduera guztiei ezarriko zaie. Hondakinak garraiatzeko jarduerak kanpo utziko dira, baldin eta ez badira udalerrian sortu edo bertatik kanpo kudeatuko badira.

4. artikulua. Araudia

Ordenantza honek araututako jokaerak indarrean dauden arauak eta gainerako xedapenak, edo horien ordezkioak, beteko dituzte. Bereziki, eta arautzen ari garen garaiari bereziki lotuta daudelako, hauek aplikatuko dira:

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.

2016-2022rako Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Plana (PEMAR).

22/2011 Legea, uztailaren 28koa, Hondakinena eta Kutsatutako Lurzoruena.

5/2013 Legea, ekainaren 11koa, Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea eta Hondakin eta Lurzoru Kutsatzaileei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legea aldarazten dituena.

26/2007 Legea, 2007ko urriaren 23koa, Estatuko Buruzagitzarena, Ingurumen Erantzukizunari buruzkoa.

16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzkoa, eta hori garatzen duten ondorengo araudiak.

11/1997 Legea, apirilaren 24koa, Bilgarri eta Bilgarrien Hondakinei buruzkoa, eta hori garatzen eta aldatzen dituzten 782/98 eta 252/2006 Errege Dekretuak.

2090/2008 Errege Dekretua, abenduaren 22koa, Ingurumenarekiko Erantzukizunari buruzko Legea (urriaren 23ko 26/2007) hein batean garatzeko araudia onartzen duena.

105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntza eta eraispenerako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko.

815/2013 Errege Dekretua, urriaren 18koa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integraturako uztailaren 1eko 16/2006 Legea garatzeko eta industria isurketen Erregelamendua onartzen duena.

508/2007 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, E-PRTR Erregelamenduko eta ingurumen-baimen bateratuetarako isurpenei buruz eman beharreko informazioa arautzen duena.

679/2006 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duena. 3.4 eta 5.5 artikulua indargabetu egin ziren 16/2008 Errege Dekretuan (Pilei eta meta-gailuei eta horien hondakinen ingurumen-kudeaketari buruzkoa).

110/2015 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, Tresna elektrikoaren eta elektronikoaren hondakinen kudeaketari buruzkoa.

9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Lurzorua kutsa dezaketean jarduerak zerrendatu eta lurzoru kutsatua izendatzeko irizpideak eta estandarrak ezartzen dituena.

1481/2001 Errege Dekretua, Hondakinak hondakindegian utzita ezabatzea arautzen duena.

1378/1997 Errege Dekretua, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta hauek dituzten makinak ezabatzeko eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituena, eta 228/06 Errege Dekretua, aurrekoa aldatzen duena.

952/1997 Errege Dekretua, ekainaren 20koa, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak onartzen duen Hondakin Toxiko eta Arriskutsuei buruzko Oinarrizko Legea (maiatzaren 14ko 20/1986) aldatzen duena.

106/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, pilak eta metagailuak eta haien hondakinen kudeaketari buruz.

363/1995 Errege Dekretua, substantzia berrien jakinarazpenari eta substantzia arriskutsuen sailkapen, ontziratze eta etiketatuari buruzko araudia onartzen duena.

833/1988 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea (Hondakin Toxiko eta Arriskutsuei buruzkoa) burutzeko Erregelamendua onartzen duena.

MAM/304/2002 Agindua, otsailaren 8koa, hondakinak balioztatzeko eta deuseztatzeko eragiketarak eta hondakinen europar zerrenda, baita haren hutsen zuzenketa ere, argitaratzen duena.

Hondakin arriskutsuak edo haien eratorriak fabrikatzean, banatzean edo erabiltzean aplikatu beharreko prebentzio, segurtasun- eta osasun-arau guztiak.

2014-2020rako EAEko Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Plana.

3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoa.

4/2015 Legea, ekainaren 25ekoa, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa zuzentzekoa.

112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena.

183/2012 Dekretua, irailaren 25ekoa, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko dena.

212/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen duena.

407/2013 Dekretua, irailaren 10ekoa, aldi baterako baliogabetzen duena urriaren 16ko 212/2012 Dekretua (Ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen duena).

468/2013 Dekretua, abenduaren 23koa, aldi baterako baliogabetzen duena 183/2012 Dekretua, irailaren 25ekoa (ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa sortzeko eta arautzeko dena).

49/2009 Dekretua, otsailaren 24koa, Hondakinak hondakindegietan biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duena.

165/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak izan dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioari buruzkoa.

34/2003 Dekretua, otsailaren 18koa, altzairua arku elektrikoko labeen fabrikatzeak sorrarazten duen zepa baloraziotzea eta gerora erabiltzea Euskal Autonomia Erkidegoan arautzen duena.

21/2015 Dekretua, martxoaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoan hondakin sanitarioak kudeatzeko baldintzak arautzeko dena.

5. artikulua. Eskumenak

1. Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko Legeak (uztailaren 28ko 22/2011) 3. artikuluan ezartzen du hiri- edo udal-hondakinak (etxeko hondakinak) direla, besteak beste, etxeetako eraikuntza- eta konponketa-obra txikietako hondarrak.

Era berean, 12. artikuluko 5. zenbakian (administrazioen eskumenak) toki-erakundeei ematen die hiri hondakinak kudeatzeko eskumena, Lege honetan ezarritako terminoetan eta, dago-kionean, autonomia-erkidegoek agindutakoetan. Jarduera hori Toki Araubidearen Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84.1 artikulua arabera arautu ahal izango da, ordenantzen bidez eta aurrez lizentzia eta kontrolatzeko beste ekintzak burututa.

Nahitaezko zerbitzu gisa, etxeetan, dendetan eta zerbitzuetan sortutako etxeko hondakinak biltzea, garraiatzea eta tratatzea, dagozkien ordenantzek (kasu bakoitzean dagoen autonoma-erikidegoak emandakoa) Lege honetan ezarritako esparru juridikoan ezartzen duten moduan eta ekoizlearen erantzukizun areagotuari buruzko sektoreko araudiak ezartzen duenari jarraikiz. Udalerriei dagokie zerbitzu hau ematea, eta modu independentean edo beste batzuekin elkartuta gauzatu ahal izango dute.

Zaintza- eta ikuskaritza-ahalmena gauzatzea, baita zehapen-ahalmena ere, beren eskumenen esparruan.

Toki-erakundeek eskumen hauek izango dituzte:

Beren eskumenerako hondakinak prebenitzeko eta kudeatzeko programak egitea.

Arriskutsuak ez diren merkataritzako hondakinak eta industrian sortutako etxeko hondakinak kudeatzea, dagozkien ordenantzetan ezarritakoari jarraikiz, alde batera utzi gabe hondakinen ekoizleek hondakinak beren kabuz kudeatu ahal izatea, 22/2011 Legearen 17.3 artikuluan ezarritako baldintzetan. Toki-erakundeak bere kudeaketa-sistema ezartzen duenean, hondakinen ekoizleak sistema horretan sartzera behartu ahal izango ditu kasu batzuetan, behar bezala arrazoituta eta eraginkortasun eta efikazia handiagoko irizpideak oinarri hartuta.

Ordenantzen bidez, etxeko hondakin arriskutsuen edo kudeatzeko zailtasunak sorrazten dituzten ezaugarriak dituzten bestelako hondakinen ekoizle nahiz edukitzaileak behartzea ezaugarri horiek kentzeko edo murrizteko neurriak hartzea, edo hondakinak modu eta leku egokian uztera.

Hondakinak kudeatzeko jarduerak zuzenean edo toki-araubideari buruzko legedian zehaztutako beste edozein modutan gauzatzea. Jarduera horiek toki-erakundeek modu independentean edo tokiko hainbat erakunderekin elkartuta egin ahal izango dituzte.

Administrazio publikoek, haien eskumenen esparruan, zerbitzu publikotzat jo ahal izango dituzten hondakin jakin batzuk kudeatzeko zenbait eragiketa, baldin eta behar bezala arrazoituta badago, giza osasuna eta ingurumena babesteko.

2. Duela gutxiko Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak (2/2016) bere 17.1.17) artikuluan aitortzen du udalek eskumena dutela hiri- edo udal-hondakin solidoen bilketa- eta tratamendu-zerbitzuak antolatzeke, kudeatzeko, emateko eta kontrolatzeko, baita hiri edo udal-hondakinen ekoizpena murrizteko plangintza, programazioa eta diziplina ezartzeko ere.

3. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuak bere 6. artikuluan eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena, edukitzea eta kudeaketaren kontrola autonomia-erkidegoei eta tokiko erakundeei egozten die, eta bien arteko lankidetzeta eta elkarren arteko laguntza sustatzen ditu.

Bestalde, 105/2008 Errege Dekretuak, bere lehenengo xedapen gehigarrian, EDk garatutako EEHen ekoizle- eta edukitzaile betebeharratit (4. eta 5. artikulua) salbuesten ditu etxeko eraikuntzako eta konponketako obra txiki guztiak, horiek tokiko erakundeek euren udal-ordenantzetan ezarritako baldintzen pean egon behar baitute.

4. 112/2012 Dekretuak bere 9. artikuluan ezartzen du udalak ezarriko duela, udal-ordenantza bidez, gutxienez hiru frakzio bereizteko irizpide bat, baita obra txikitik datozen eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizle eta kudeatzaileen betebeharrak ere.

112/2012 Dekretuak berak, azken xedapenetatik lehenengoan, ezartzen du udalerriek Dekretu hau indarrean jarri eta 12 hilabeteko epean udal-ordenantzak onartu beharko dituztela Estatuko legediak eta dekretu honek ezarritakoari kalterik egin gabe, obra txikietako eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketa arautzeko, mugekin, tasekin, eta dagokionean egon daitezkeen fidantzekin batera eta udalerriko bakoitzeko egoeraren eta kasuen arabera.

6. artikulua. Helburuak

1. Ordenantza honek helburu kualitatibo hauek ditu:

Kontrol handiagoa bermatzea EEHen sorkuntzari eta kudeaketari dagokionez.

EEHak jatorrian sailkatzeko ohitura zabaltzea obra txikietan.

EEHen sorkuntza murriztea jatorrian.

Obretan sortutako EEH arriskutsuak jatorrian bereiztea, hondakinen legediarekin bat etorritz.

Jasotako EEHek barne hartzen dituzten hondakin arriskutsuak tratamendu-instalazioetan bereiztea, eta hondakinei buruzko legediaren arabera kudeatzea.

Obretako EEHak materialen arabera banatzea, 112/2012 EDn ezarritako atalaseen arabera.

EEHak kontrolik gabe botatzearekin amaitzea Barrundiako udalerrian.

Baimenduko kudeatzaileek tratatzea EEHak legerian ezarritako terminoetan.

Sortzen diren EEHak berriro erabil eta birzikla daitezela sustatzea, baita balioztatzeko beste modu batzuk ere.

Agregakin birziklatuen kontsumoa sustatzea.

2. Ordenantza honek helburu kuantitatibo hauek ditu:

2016-2022rako Hondakinak Kudeatzeko Estatuko Esparru Planarekin (PEMAR) bat etorritz:

Hondakinak Kudeatzeko Hierarkiaren Printzipioa ezartzea.

Hondakinen pisuaren ehuneko 70 iristea 2020an birziklatzerakoan eta balorizaziorakoan, lurrak kontuan hartu gabe.

Hondakin-izaeraren amaieraren kontzeptua martxan jartzea.

Ekoizpen eta kudeaketarako erregistro bakarra ezartzea.

Goi-mailako material birziklatuen ekoizpena sustatzea.

Agregakin birziklatuen erabilera sustatzea, ehuneko 5era iristeko obra publikoetan.

EAE-ko 2020, «Ekonomia Zirkular Baterantz Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Planarekin bat etortzea:

Agregakin birziklatuen erabilera sustatzea, ehuneko 5era iristeko obra publikoetan (erosketa publiko berdea).

Hondakinen gaikako bilketa eta bereizketa areagotzea, gutxienez ehuneko 75era arte, eta hondakinen ehuneko 60 berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeko prestatzea, 2020rako.

Zehazki, honako helburu espezifiko hauek ezarri dira EEHentzat:

Ahalik eta gehien mugatzea EEHen deuseztapena eta beste autonomia-erkidego mugakide batzuetarako garraioa.

EEHen gaikako bilketa eta bereizketa areagotzea.

EEHen birziklapena ehuneko 60tik (2016an) ehuneko 70era (2020an) areagotzea (lur eta harkaitz ez-kutsatuak kontuan hartu gabe, LER 2004ko maiatzaren 17an).

7. artikulua. Administrazio Publikoek EEHak balioztatzen dituzten produktuen erabilera eta prebentzioa sustatzea

1. Udalak zainduko du sustatzaile gisa aritzen diren obretan eraikuntza- eta eraispén-hondakinen sorkuntza prebenitzeko neurriak har daitezela. Ordenantza honetan eta hondakinei buruzko gainerako legeetan ezarritako eskakizunak aplikatzeaz gain, zainduko du obraren proiektua egiteko fasean kontuan har daitezela eraikuntza- eta ustiapén-fasean hondakin gutxiago sortzen dituzten diseinu- eta eraikuntza-alternatibak, eta obraren amaieran hori ingurumenarekiko egokia den moduan desmuntatzea ahalbidetzen dutenak.

2. Udalak obra publikoen kontratuetan eta obra publikoak ematekoetan preskripzio teknikoaren pleguen bidez EEHen berrerabilpenetik edo birziklatzetik datozen produktuen erabilera sustatuko du.

3. Udalak sustatuko du sustatzaile gisa aritzen den obretan kontuan har dadila, proiektu-fasean, baliabide naturalen erabilera aurreratu ahalbidetzen duen alternatibaren bat; bereziki, obra-unitateetan EEHak balorizatzearen ondorioz sortutako produktuak eta materialak erabiliz.

4. Udalak sustatuko du obra-proiektuen eta planen ingurumen-ebaluazioa egiteko prozeduratan behar bezala har daitezela kontuan eraikuntza eta ustiapén-fasean sortutako eraikuntza eta eraispén-hondakinek dituzten eraginak.

5. Kontratatzen aurkeztutako eskaintzak baloratzean, Udalak sustatuko du obra-kontratuak esleitzeko prozeduratan lehentasuna ematea hondakin gutxiago sortzea dakarten aukerak barne hartzen dituzten proposamenei, edo obra-unitateetan hondakina balioztatzearen ondorioz lortutako produktuak eta materialak barne erabiltzen dituztenei.

II. KAPITULUA. EEHEN KUDEAKETA

8. artikulua. Arazte orokorra

1. Obrak egiteko, dena delako erregimen juridikoaren mende egon arren (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen- ekainaren 30eko 2/2006 207.2, 207.4 eta 212. artikuluetan ezarritako kasuetan salbu), fidantza bat zehaztuko da obra horretan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakin guztiak baimendutako kudeatzaile baten esku jartzeko betebeharra bete dadin.

2. Administrazio-kontrolaren mende utziko dira eraikuntza- eta eraispén-hondakinak sortzen dituzten jarduerak; horretarako, kontrolatu egingo dira obraren hirigintza-lizentzia edo beste administrazio-baimen batzuk emateko egintza administratiboak, eraispén-baimenak ematekoak, gauzatzeko-aginduak edo, hala badagokio, lurretako hirigintza proiektuak onesteko administrazio-egintzak.

3. Obra batean sortutako EEHak zuzenean erabiliko badira birsorkuntza-lanetan edo esku-meneko administrazioak baimendutako beste lan batzuetan, dagozkien kontrol-neurrien berri eman beharko da, erabilera lizentzian adierazitakoa izan dadin.

4. Udalak, hiri-hondakinen arloan dituen eskumenen esparruan —eraikuntza- eta eraispén-hondakinak barne— obretarako udal-lizentzia emateko eta hirigintza-proiektua onartzeko baldintza hau jarriko du: eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizleak fidantza edo horren baliokidea den finantza-berme bat jarri beharko du, bat etorri 112/2012 Dekretuaren 5. Artikularekin, obran sortzen diren eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzaile baimenduen esku jartzeko betebeharrari erantzuteko.

5. Hirigintza-lizentzia edo hirigintza-proiektua onartu ostean, EEHen ekoizleak fidantza edo finantza-bermea jarriko du; hartara, hirigintza-lizentzian edo hirigintza-proiektuak obrako eraikuntza- eta eraispén-hondakinei dagokienez onartzen duen ebazpenean ezartzen diren eskakizunak betetzen dituela bermatuko da. Fidantza hori araututa dagoen moduan jarri beharko da. Obra-lizentzian eta hirigintza-proiektuaren onespenean ezarritakoaren aurka jardunez gero, fidantza jarri duenak galdu egingo du, eta, fidantzarik jarri ez badu, lizentziek eta onespenez ez dute efikaziarik izango.

6. Azpikontratazioak eginez gero, eta erantzukizunek eragin solidarioa izateko aukera alde batera utzi gabe, erantzule nagusia kontratuaren titularra den enpresa izango da, obrak azpikontratatzaren diren edo ez kontuan hartu gabe.

7. Obrak egingo ez balira, bermea itzultzeko eska dezake ekoizleak.

9. artikulua. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen (EEH) kudeaketa

1. Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan (eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena), edo hori ordeztzen duen araudian, ezarritakoaren arabera gauzatuko dira. Honako atal hauek araudi horretan ezarritakoaren ezaugarri gisa aplikatuko dira.

Edukiontzia eta zakuak.

Materiala obraren barnean biltegitratuko da.

Debekatuta dago obretan sortzen diren material, hondakin edo hondarrak bide publikoan uztea. Horretarako, edukiontzia eta/edo obrako zakuak erabiliko dira.

Obra batean 5 m³ baino gehiagoko EEHak sortzea aurreikusten ez denean, horiek EEHentzako zakuak erabiliz bildu eta aterako dira.

Edukiontzia eta zakuak obrako «garbigunean» egongo dira. Eremu horretan hondakin motak bereiziko dira, horien ondorengo kudeaketa errazteko, aplikatu beharreko araudian ezarritakoari jarraikiz.

Bide publikoan obretarako edukiontzia jartzeko, baimena behar da, obrarentzat gordetako eremu hesituaren barnean jartzen direnean izan ezik.

Obretarako edukiontzia eta zakuak ezin dute bide publikoan egon ostiraleko 20:00etatik hurrengo astelehenerako 8:00ak arte, ezta jai-bezperetan ere.

Edukiontzia galtzadan badaude, 0,30 metrotako tartea utzi beharko da espaloien zintarritik, azaleko urak galtzadatik igarotzea eragotz ez dezaten.

Edukiontzia kentzean, obraren arduradunak garbi utzi beharko du edukiontzia egon den bide publikoko zatia.

Hondakinak mugitzean, kontu handiz egingo da, hautsa sakabanatzea eragozteko; horretarako, edukiontzia estaliak, txirristak eta prozesu hezeak erabili beharko dira. Horrez gain, derri-gorrezkoa da edukiontzia eta zakuak estaltzea lan-ordutegia amaitzen den bakoitzean.

Hondakinek edukiontzia-punturik altuenetik 20 zentimetro igarotzen dituztenean, jaso egingo dira, beti edukiontzia bete den egunean bertan. Edozein udal-ordetza hondakinak jasotzeko abisua ematen badu, hala egin beharko da, hurrengo 4 orduetan.

Edukiontzien garbiketa-, kontserbazio- eta ikusgarritasun baldintza ezin hobeetan egon beharko dute beti.

Edukiontzia edo plataforma behar bezala hesitu eta seinaleztatu beharko da, banda islatzaileak erabiliz, pertsonak eta ibilgailuek arriskurik izan ez dezaten.

Hondakinak jasotzeko erretiluak erabiltzen badira, okupazio-eremua behar bezala hesitu eta seinaleztatu beharko da, banda islatzaile batekin, pertsonak eta ibilgailuek arriskurik izan ez dezaten.

Ez da baimenduko edukiontzia zuzenean bide publikoaren gainean jartzea; habetzanak erabiliko dira, lurra kaltetu ez dadin.

Neurri zuzentzaileak aplikatuko dira (olana erabiltzea), edukiontzia betetzean hautsik sor ez dadin.

Emandako epea iragandakoan aprobetxamenduarekin jarraitzea eta baimendutakoa baino azalera handiagoa erabiltzea iruzurtzat joko dira.

Eskatzaileak, edo etorkizunean horren ordez dokumentu hau izan dezakeenak, dokumentua erakutsi egin beharko du teknikariek edo obren ikuskaritzaz arduratzen diren agenteek hala eskatzen diotenean.

Okupazioaren ondorioz galtzako zoladuran edo beste edozein hiri-altzaritan kalteak edo narriadurak sortzen badira, berehala konpontzeko eskatuko da, baita ordezkatzeko ere, beharrezkoa bada. Horretarako emandako epean eskakizun horri erantzun ezean, kaltetutako eremua subsidiarioki garbitu edo konponduko da, eskatzailearen kontura.

Hondakinen garraioa

Hondakinen edukitzaileak behar bezala bereiziko ditu obrako hondakinok, eta, ondoren, garraiatu eta behar den tokian utziko ditu, haiek sortu diren tokitik hurbilen dagoen garbigunean edo udal-ordenantzek agintzen duten moduan.

Obren ondoriozko lurrak eta hondakinak garraiatzeko ibilgailuetan, karga estali egingo da, materialak eta/edo hondakinak sakabana ez daitezten.

Obraren eremutik irtetean, ibilgailu astunen gurpilak eta azpiko aldeak garbi daudela egiaztatuko da. Horrez gain, obraren eremutik kanpo kamioiak igarotzen diren bide guztiak sakon eta egunero garbituko dira. Halaber, karga guztiak olana edo sare-begiekin estaliko dira.

Ibilgailuak kargatzean, bide publikoa ez zikintzeko beharrezko neurriak hartuko dira.

Amiantoa duten materialak.

Amiantoa duten materialak aplikagarri den araudian ezarritako eskakizunen arabera jasoko, garraiatuko eta kudeatuko dira (396/2006 Errege Dekretua, martxoaren 31koa, amiantoaren eraginpean egoteko arriskua duten lanei aplikatu dakizkiokeen segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak ezartzen dituena).

10. artikulua. Obra txikien erregulazioa

1. Proiektu teknikorik behar ez duten obretarako, haiek arautzen dituen araubide juridikoa izanik ere, eraikuntza- eta eraispen-hondakinen ekoizleak, edo haren izenean ari den edukitzaileak, lizentziaren izapideak egiteko beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko du. Horrekin batera, kapitulutan banakatutako aurrekontu bat ere aurkeztu beharko du; horien artean, hondakinen kudeaketari buruzko kapitulu bat egongo da nahitaez.

Hondakinen kudeaketari buruzko kapituluetan EEHak bereizi egingo dira, gutxienez hiru frakzio hauetan:

Harrizko hondakinak: adreiluak, hormigoia, baldosak, harriak eta arrokak, zeramika (sabai aizunen igeltsua, moldurak eta panelak izan ezik, harrizko gainerako materialen zenbait ustiapen eragozten baitituzte).

Hondakin arriskutsuak: amiantoa, pinturak, detergenteak, itsasgarriak, erretxinak, gehigarriak eta abar.

Hondakin ez arriskutsuak: beira, zura, metalezko hondakinak, PVCzko elementuak, bestelako plastikoak eta abar.

2. EEHen ekoizleak fidantza bat ordaindu beharko dio Udalari, sortutako EEHak behar bezala kudeatzen dituela ziurtatzeko, ordenantza honen 11. artikuluan zehazten den moduan. Fidantza zehazteko kuotaren oinarria lizentziaren izapideak egiteko eskabidearekin, Ordenantza honetako I. eranskinean zehaztutako zenbatekoen banaketarekin batera zehaztuko da.

3. Obra amaitzean, EEHen ekoizleak fidantza itzultzeko eskaera aurkeztu beharko du, eskaera orokorraren arabera, eta agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

Jarritako fidantzaren frogagiria.

Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen baimendutako kudeatzailearen ziurtagiriak.

Fidantza itzultzeko banku-kontuaren zenbakia (ESXX_20 dígitos).

11. artikulua. Fidantza zehaztea

1. 10. artikuluan aurreikusitako fidantzaren zenbateko hau finkatuko da:

Aurrekontu osoaren ehuneko 5, aurrekontua, BEZik gabe, betiere gutxienez 100,00 euro-takoa izanik.

2. Eskatzaileak fidantza eratzeko, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena) ezarritako moduan egin dezake.

12. artikulua. Prozedura

Obra txikietako EEHak era hauetan entregatu ahal izango dira:

Bide publikoan ezarritako edukiontzietara botako dira zuzenean. Edukiontzioak EEHen ekoizleak kontratatuko ditu eta, ondoren, kudeatzaile baimenduek kudeatuko dituzte.

13. artikulua. Obra handiko fidantza itzultzea

1. 112/2012 Dekretuaren 5.4 artikuluan obra handietarako arautu gabeko alderdian, ordenantza honetan ezarritakoa aplikatuko da.

2. Behartutako pertsonak aldeztu behar dira eskatuta eta obran sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatutakoan (dokumentuen bitartez, 112/2012 Dekretuan ezartzen denari jarraikiz) bakarrik bueltatuko da fidantza. Horretarako, okupatu ahal izan den bide publikoaren eremuaren argazkiak ere aurkeztu beharko ditu, obraren amaieran zein egoeratan dagoen frogatzeko. Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen ez bada eta/edo bide publikoa kaltetu bada, Udalak aukera izango du bide publikoa konpontzeko eta hondakinak behar bezala kudeatzeko beharrezko jarduerak egiteko, subsidiarioki; ezin badu, udalerrian ingurumena hobetzeko jarduerak eta sentsibilizazio-kanpainak egiteko erabiliko du fidantzaren dirua. Edonola ere, hondakinei buruzko araudian ezarritako zehapen-araubidea aplikatuko da.

3. Udalak, ekoizleak berariaz eskatu badu eta Kudeaketaren Azken Txostena jaso badu, osorik eta egiaztatuta, 112/2012 Dekretuaren 6. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, fidantza itzuliko du, baldin eta egiaztapenaren irizpena aldekoa bada.

4. Egiaztapen-txostenaren irizpena aurkakoa bada, justifikazio osagarri bat eskatuko da eta, hori aldekoa bada, fidantza itzuliko da. Bestela, fidantza erabat blokeatuko da eta egikaritu egingo da, interesdunari entzun eta bulego teknikoaren txostena ikusi ondoren, eta administrazio-prozeduran ezarritakoarekin bat etorritik.

14. artikulua. Obra txikiko fidantza itzultzea

Fidantza itzultzeko, derrigorrezkoa izango da betebeharra duen pertsonak eskatzea eta obran sortu diren hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzea, agiri bidez. Horretarako, kudeatzaile baimenduak emandako egiaztapen aurkeztu beharko du, ordenantza honetako II. eranskinarekin batera. Hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen ez bada eta/edo bide publikoa kaltetu bada, Udalak aukera izango du bide publikoa konpontzeko eta hondakinak behar bezala kudeatzeko beharrezko jarduerak egiteko, subsidiarioki; ezin badu, udalerrian ingurumena hobetzeko jarduerak eta sentsibilizazio-kanpainak egiteko erabiliko du fidantzaren dirua. Edonola ere, hondakinei buruzko araudian ezarritako zehapen-araubidea aplikatuko da.

15. artikulua. Lehenengo erabilera edo okupazioko lizentzia

1. Indarrean dagoen legediak ezarritako lehen okupazio edo erabilera lizentzia tramitzeko, EEHen ekoizleak 112/2012 Dekretuan obra handientzat eta ordenantza honetan obra txikientzat zehaztutako agiriak aurkeztu beharko ditu, Udalarai aurkeztu beharreko gainerako agiriak albo batera utzi gabe.

2. Hondakinen kudeaketari buruzko agiri egokiak entregatu ezean, ez da eraikinaren, eraikuntzaren edo instalazioaren lehen okupazio eta/edo erabilerako lizentziarik emango; dena den, fidantza egikaritu egingo da, eta legerian eta ordenantza honetan ezarritako zeharpen-araubidea aplikatuko da.

III. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOA ETA EUSPEN-ELEMENTUEN ERABILERA

16. artikulua. Kokapena

1. Euspen-elementuak obrarako itxitako eremuaren barruan jarriko dira, batez ere, eta horrelakorik ezin bada, aparkatzeko baimendutako bide publikoko galtzadetan edo espaloietan, jartzerik baldin badago eta oinezkoen pasabidea galarazten ez badu.

2. Ahal dela, dagokion obraren aurrean edo obratik ahalik eta gertuena jarriko dira.

3. Ezingo dira oinezkoen pasabideetan jarri, ezta horien aurrean edo ezinduentzako pasagune eta beheraguneetan ere, ezta erreserbatutako espazioetan eta geralekuetan ere.

4. Euspen-elementuak galtzadaren gainean jarri ahal izango dira, aparkatzea baimenduta dagoen eremuetan, zirkulatzeko 3,5 metro baino gehiagoko tokia uzten baldin bada libre.

5. Euspen-elementuak espaloian ere jarri ahal izango dira galtzadaren ondoan, igarotzeko metro eta erdiko tokia uzten bada. Edukiontziak erabiliz gero, zurezko edo beste material batekin egindako taulada baten gainean jarri beharko dira, edukiontziak zoladuraren gainean zuzenean ez jartzeko.

6. Aparkatzea galarazita dagoen kaleetan eta espaloien zabalera txikiagatik euspen-elementurik jarri ezin den kasuetan, hondakinak obraren barruan biltegitratuko dira eta, udal-agintaritzak kalea mozteko baimena eman ondoren, garraioaz arduratuko den kamioira zuzenean kargatuko dira.

17. artikulua. Kokatzeko era

1. Oro har, edukiontziak obrak egingo diren lursailen barruan jarri beharko dira. Hor jartzea ezinezkoa balitz, galtzadan jarri ahal izango dira, obra egingo den lekutik ahalik eta gertuena, aparkatzea baimendutako tokiren batean.

2. Edukiontzien ezingo dute ibilgailuen ikusteko gaitasuna murriztu, bereziki bidegurutzetan, eta aparkatzeko ezarritako distantziak errespetatu beharko dituzte, ibilgailuen zirkulazioaren eta Bide Segurtasunaren arloan dagoen araudia betez.

3. Ezin izango dira obraren edukiontziak udal-zerbitzuetarako sarbideen gainean jarri (estolderia, telefono-sistema, argindarra...) ez eta kalteak jasan ditzakeen edo beste edozein hirigintza elementuren gainean ere, horrek elementu horien erabilera arrunta oztopa badezake. Halaber, ezingo dira edukiontziak jarri izaera publikoko erakundeen, udal- zein osasun-erakundeen, banketxeen edota bestelakoen aurrean, edukiontzia hor jartzeak galarazi egiten badu elbarriren bat bertara sartzea. Inondik inora ere ezingo dira osorik edo zati batean zerbitzu publikoetarako tapen gainean jarri, ezta ureztatzeko ahoetan, ur-hartuneetan, zuhaitz txorkoetan edo erregistrotan, ezta hiriko beste inolako elementuren gainean ere, egoera normaletan edo larrialdietan normal erabiltzea galaraziko balute.

4. Espaloitik 0,30 metrotara kokatuko dira, azaleko urak errepede ertzeko erretenetik gertueneko kainozulora joan ahal izateko.

5. Euspen-elementuak gehienez ere 2 metro irtengo dira behar bezala aparkatutako ibilgailuek eratzen duten kanpoko aldeko lerrotik.

6. Edukiontziak ezin izango dira espaloien gainean jarri, espaloien horretan gainetik oztoporik gabe ibiltzeko libre gelditzen den zabalera, hala dagokionean hesiek hartzen duten espazioa kenduta, 1,20 metrotik gorakoa ez bada edukiontzia jarri ondoren. Horrez gain, edukiontzia ezingo da galtzadaren gainean jarri noranzko bakarreko bide batean libre gelditzen den espazioa

3 metrotik beherakoa bada edo noranzko bikoitzeko bide batean libre gelditzen den espazioa 6 metrotik beherakoa bada. Ezingo da edukiontzirik jarri 4 metro zabal baino estuagoak diren kaleetan, ez espaloian ez galtzadan.

7. Inondik inora ere ezingo dira osorik edo zati batean zerbitzu publikoetarako tapen gainean jarri, ezta ureztatzeko ahoetan, ur-hartuneetan, zuhaitz txorkoetan edo erregistroetan, ezta hiriko beste inolako elementuren gainean ere, egoera normaletan edo larrialdietan normal erabiltzea galaraziko balute.

8. Hondakin ekoizlea izango da bide publikoan edukiontzia jartzearen azken erantzulea; beraz, beharrezko neurriak hartuko ditu garraiolariak edukiontzi hori toki zuzen eta egokian koka dezan.

9. Udalak baimendutako edukiontziak beste toki batean jartzea erabaki ahal izango du, bai eta emandako lizentziak edo baimenak aldi baterako etetea ere, zirkulazioa dela eta, bide publikoan egin beharreko obrak direla eta, edo zerbitzua hobetzeko asmoz.

10. Beharrezkoa balitz, udal-zerbitzuek, bide publikoan ospakizunak edo bestelako ekitaldiak egiteko, erabiliko diren tokietan dauden edukiontziak aldi baterako kentzeko eskatu ahal izango dute, ospakizun edo ekitaldi horiek irauten duten bitartean.

11. Udal-zerbitzuek eragina jasan duen bidea garbitu eta bertako lurra eta hondakinak kendu ahal izango dituzte, eta emandako zerbitzu horrek eragindako kostuak arduradunek ordaindu beharko dituzte; gainera, hala dagokionean, zehapena ere jaso dezakete. Material horien garraioen ondoriozko obren eta lanen sustatzaileak eta enpresaburuak izango dira arduradun subsidiarioak.

18. artikulua. Erabilera

1. Berariaz galarazten da hondakinentzako baimendutako ontzietan 2. artikuluan ezarritako definizioen arabera baimenik ez duten hondakinak botatzea.

2. Auzokoei eragozpenik ez sortzeko, bide publikoan dauden edukiontzietara bota behar diren hondakinak edo bete behar diren edukiontziak, obrak egiteko baimendutako ohiko ordu-tegiaren barruan egingo dira (lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 20:00etara), aitor-tutako premia duten kasuetan izan ezik, Udalaren berariazko baimenarekin. Salgaiak kargatzean eta deskargatzean, eta kaxak, edukiontziak, eraikuntza- eta eraiste-materialak, hondakinak edota bestelako objektuak manipulatzeko, eragindako zaratak ezin izango du gainditu gune bakoitzerako ezarritako muga. Salgaiak banatzeko ibilgailuetako langileek, ibilgailuaren gainazalaren edo galtzadaren gainera zuzenean erortzen utzi gabe kargatu eta deskargatu beharko dituzte produktuak, eta, ibilbidean zehar, karga mugitzeak edo dardarak eragindako zarata ekidingo dute. Kamioen bidez materialak kargatzea, deskargatzea eta garraiatzea ordutegi eta epe baten barruan egin beharko dira, bizkortasunez, ahalik eta zarata eta eragozpen gutxien eragiteko.

3. Euspen-elementuaren erabiltzaileak ezingo du inoiz ere goiko gehieneko muga baino gehiagoko isurketarik egin, eta elementu horren neurria edo gaitasuna hazteko osagarrikerik ere ezingo du erabili.

4. Laneko ordutegia amaitutakoan edo edukiontzi guztiak betetakoan, olanekin edo beste bitartekoren batekin estaliko dira, beste batzuek hondakinak botatzeko erabili ez ditzaten. Bertako materialak kanpora ez irteteko moduan estaliko da edukiontzia.

5. Hondakinen jabeak, aipatu hondakinak bere esku dauden bitartean, higiene- eta segurtasun-baldintza egokietan mantendu beharko ditu, eta jada hautatutako zatiak ez ditu berriro nahastuko, horrek ondoren balioztatzea edo deuseztatzea galarazten edo zailtzen badu.

6. Euspen-elementu horiek betetakoan, hondakinak dituenak jakinarazi beharko dio garraio-lariari elementu horiek eramatera etortzeko.

7. Ontziak edo edukiontziak kontratatzeko edo alokatzeko, hondakinak dituenak bide publikoa okupatzeko berariazko lizentziaren fotokopia aurkeztu beharko du.

8. Edukiontzien jabeek edo garraiolariak ezingo dute ontzirik alokairuan eman, hondakinak dituenak (obraren sustatzaileak edo eraikitzaileak) obrako lizentziarik ez badu.

19. artikulua. Bide publikoa garbitzea

Zamalanen ondorioz bide publikoan hondarrak geratuko balira, hondakinak sortu dituenak berehala garbitu beharko du bide publikoaren erasandako tarte hori eta, horrelakorik egiten ez badu, bera izango da erantzulea.

20. artikulua. Ontziak jarri eta kentzeko lanak

1. Ontziak instalatu eta kentzeko lanak, dagozkien lizentzietan kalterik egin gabe, herritarrei inolako oztoporik sortu gabe egin beharko dira, zehaztapen hauen arabera:

Bertako edukia bide publikora ez erortzeko moduan erabiliko dira eta eduki hori ezingo du haizeak altxa edo zabaldu.

Bide publikoan erabili den azalera eta inguruak garbi geratu behar dira.

Zoladuran edo bide publikoko beste elementuetan eragin ahal izan diren kalteak konpondu behar dira; udal-zerbitzuei berehala emango zaie horren berri, jabari publikoa jatorrizko egoerara itzultzeko obrak hasi aurretik, eta udal-jarraibideen eta ordenantzen arabera burutuko dira lanak.

2. Euspen-elementuak bide publikotik kenduko dira:

Gehienez obra edo bide publikoa okupatzeko lizentziaren indarraldia amaitu eta 48 orduko epean.

Edukiontziak hondakinez beteta egonez gero, berehala kenduko dira.

Dagokion udal-agintaritzak justifikatutako arrazoiren batengatik hala eskatuz gero, adierazitako epean kendu beharko dira.

IV. KAPITULUA. BIDE PUBLIKOA OKUPATZEKO BAIMENA

21. artikulua. Udal-agintarien mende jartzea

Ordenantza honen mendeko euspen-elementuak bide publikoan jartzea udal-baimenaren mende egongo da, obra batean behar bezala itxitako gunearen barruan jartzen ez badira behintzat.

22. artikulua. Bide publikoa okupatzeko eskaera

1. Elementuak jartzeko baimenaren eskaera hondakinak dituenak egingo du, hondakinak sortzeko jarduera babesten duen lizentzia adieraziz.

2. Eskaera hori dagokion lizentzia jaso ondoren egin beharko du, eta honako datu hauek agertu beharko dira bertan:

Eskatzailearen datuak.

Hondakinak sortuko dituen jardueraren lizentziaren edo, hala dagokionean, horren eskaeraren fotokopia.

Krokisa, obraren kokapenarekin.

Aldi berean beharko diren euspen-elementu moten eta kopuruaren identifikazioa, eta unitate bakoitzaren gaitasuna.

Euspen-jarduera hasiko den gutxi gorabeherako data eta bide publikoan egongo den azkeneko eguna.

Obrako kontratugilearen identifikazioa.

Erantzukizun zibileko aseguruaren fotokopia, eta urteko ordainketaren ziurtagiria.

23. artikulua. Egoteko eta kentzeko baldintza bereziak

1. Dagokion lizentzian ontziak eremu edota ordu jakin batzuetan egotea mugatu daiteke.
2. Halaber, emandako lizentziek betebeharrak bete beharko dute; hau da, ontziaren erantzuleak bide publikotik kendu beharko du ontzia ekitaldi publikoak egiteko edo interes orokorreko beste arrazoiren batengatik eskatuz gero. Eskaera egitean kentzeko epea ere adieraziko da.

24. artikulua. Ontzia jartzeko lizentzia edo baimena eskualdatzea

Ontzia jartzeko lizentzia eskualdatzearen berri idatziz emango zaio udal-administrazioari. Jakinarazpen hau eskualdaketa gertatu aurretik egingo da edo eskualdaketa egin eta hurrengo egunetik hasi eta hamar egun baliouduneko epean. Eskualdatu duenak eta titular berriak sinatuta egongo da jakinarazpena.

V. KAPITULUA. ZEHAPEN-ARAUBIDEA

25. artikulua. Zehapen-araubidea

1. Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, Hondakinei eta zoru kutsatuei buruzko Legearen 45. 56. artikuluetan (uztailaren 28ko 22/2011), Ingurumen-erantzukizunari buruzko Legean (urriaren 23ko 26/2007), Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorrean (otsailaren 27ko 3/1998), Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko Legean (ekainaren 25eko 4/2015) eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legean (apirilaren 2ko 7/1985) aurreikusitako zehapen-araubidea ezarriko da. Horrez gain, ordenantza honetan berariaz arautzen ez diren auzi guztietarako, aplikagarria den legedi orokorrean eta sektorialean xedatutakoari jarraituko zaio.

2. Alkatetzak du zehapenak ezartzeko eskumena; hala ere, beste organo eta administrazio batzuek dituzten eskumenak errespetatu beharko dira, sektoreko legediari jarraikiz.

3. Arau-hausteen erantzuleak pertsona fisiko zein juridikoak izango dira, egin duten edo egin ez duten zerbaitengatik arauen bat hautsi badute edo arau-hauste batean parte hartu badute.

26. artikulua. Arau-hauste motak

1. Administrazioaren arloko arau-hausteak izango dira ordenantza honetan zein sektoreko araudian ageri diren betebeharrak urratzen dituzten ekintzak eta omisioak.

2. Arau-hauste arinak, astunak edo oso astunak izan daitezke, arau-hauste motaren arabera eta eragiten duten edo babesten den ingurumenean izan dezaketen kaltearen arabera.

27. artikulua. Arau-hauste oso astunak

22/2011 Legearen 46. artikuluan adierazitakoez gain, Ordenantza honen arau-hauste oso astuntzat joko dira honako hauek ere:

Ordenantza honetan deskribatzen den jardueraren bat gauzatzea horretarako funtsezkoa den baimenik gabe edo baimena etenda edo iraungita dagoela; lizentzietan ezarritako betebeharrak ez betetzea, bai eta ordenantza honetan ezarritakoaren kontra jardutea ere, betiere horrek ingurumena larriki kaltetu badu edo pertsonen osasuna arriskuan jarri bada.

Ordenantza honetan deskribatzen den jardueraren bat gauzatzea horretarako funtsezkoa den lizentziarik gabe edo lizentzia etenda edo iraungita dagoela, edo lizentzietan ezarritako betebeharrak ez betetzea, bai eta ordenantza honetan ezarritakoaren kontra jardutea ere, jarduera gauzatzeko baimen espezifikorik behar ez den kasuetan, jarduera balio ekologiko handia duelako babestutako gune batean gauzatzen denean.

Hondakin arriskutsuak kontrolik gabe uztea, isurtzea edo ezabatzea Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean.

Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean edozein motako hondakinak kontrolik gabe utzi, isuri edo ezabatzea; betiere, ingurumenean kalte edo narriadura handia eragin bada edo pertsonen osasuna arrisku larrian jarri bada.

Ordenantza honetan adierazitako behin-behineko neurrietatik eratorritako betebeharrak ez betetzea.

Ordenantza honek arautzen dituen jarduketekin lotutako baimen edo lizentziak lortzeko administrazio-espeditentari emandako datuak maltzurkeriaz aldatzea edo horietako batzuk ezkatzea.

Aplikagarria den araudiari jarraikiz edo baimenean zein lizentzian aipaturiko xedapenei jarraikiz aurkeztu beharreko datuak ezkatzea, faltsutzea edo manipulatzeari.

Eragiten dituzten hondakinak arriskutsuak direlako debekatuta dauden substantziak edo bestelako prestakinak egitea, inportatzea edo Europako Erkidegoan erostea.

Lurzorua kutsatuta dagoela adierazten denean, garbiketa- eta berreskuratze-lanak ez egitea, Autonomia Erkidegoak hala eskatu badu ere. Horrez gain, borondatez erdietsitako akordioetatik edo lankidetzaren hitzarmenetatik eratorritako betebeharrak ez betetzea.

Hainbat kategoriatako hondakin arriskutsuak nahastea edo arriskutsuak diren hondakinak arriskutsuak ez direnekin nahastea, baldin eta horrek ingurumeneari kalte edo narriadura larria eragin badu, edo pertsonen osasuna arrisku larrian jarri badu.

Arriskutsuak ez diren hondakinak eskuratu, saldu edo ematea lege honetan adierazi ez diren pertsona fisiko edo juridikoei; baita hondakin horiek onartzea ere, baldin eta dagozkien baimenetan edo aipatutako legean ezarritako arauetan adierazitako baldintzetan egiten ez bada.

Hondakin arriskutsuen kasuan, beharrezko segurtasun-planak eta istripuak saihesteko planak ez gauzatzea, ez eta instalazio barruko zein kanpoko larrialdi-planak ere.

Ez errespetatzea/betetzea udal-teknikarietarako emandako jarraibideak.

Amiantoarekin kontaktuan egoteko arriskua eragiten duten jarduerak egitea, lan horiei aplikatu beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-baldintzak betetzen ez badira.

28. artikulua. Arau-hauste astunak

22/2011 Legearen 46. artikuluan adierazitakoez gain, ordenantza honen arau-hauste astuntzat joko dira honako hauek ere:

Ordenantza honetan deskribatzen den jardueraren bat gauzatzea horretarako funtsezkoa den baimenik gabe edo baimena etenda edo iraungita dagoela; lizentzian edo baimenetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, bai eta ordenantza honetan ezarritakoaren kontra jardutea ere, jarduera gauzatzeko baimen espezifikorik behar ez den kasuetan, betiere horrek ingurumena larriki kaltetu ez badu edo pertsonen osasuna arrisku larrian jarri ez bada.

Arriskutsua ez den edonolako hondakin bat kontrolik gabe utzi, isuri edo ezabatzea, baldin eta horren ondorioz ingurumeneari kalte edo hondatze larrikeria eragin ez bada, edo pertsonen osasuna arrisku larrian jarri ez bada.

Ordenantza honetan zein aplikagarriak diren gainerako araudietan adierazten den edo baimenean jasotako baldintzek eskatzen duten dokumentazioa ematearen betebeharra ez betetzea edo datuak ezkatatu edo faltsutzea, eta dokumentazio hori zaindu eta gordetzeko betebeharra ez betetzea.

Nahitaezkoa denean, ordenantza honetan adierazitako autolikidazioa edo horren berritzea ez ordaintzea.

Edozein motatako hondakinak eskuratu, saldu edo ematea, hondakin arriskutsuak izan ezik, ordenantza honetan adierazi ez diren pertsona fisiko edo juridikoei edo hondakinak kudeatzeko beharrezko baimena ez dutenei, bai eta hondakin horiek onartzea ere, baldin eta dagozkien baimenetan edo aipatutako Legean ezarritako arauetan adierazitako baldintzetan egiten ez bada.

Lanen gunea edo obren eraginez zikinduriko kanpoko espazioak ez garbitzea, bide publikoa zikin dezaketen eragiketak bukatu ondoren.

Bide publikoan obrarako edukiontzia jartzea Udalaren baimenik gabe.

Ibilgailuetan lurra eta hondakinak garraiatzea, material horiek hedatzea edo hautsa askatzea saihesteko ordenantza honek ezarritako baldintzak bete gabe.

Artikulu honen c) letran aipaturiko arau-hausteren bat egitea, oso astuntzat jotzeko bezain handia edo garrantzitsua ez denean.

29. artikulua. Arau-hauste arinak

22/2011 Legearen 46. artikuluan adierazitakoez gain, ordenantza honen arau-hauste arintzat joko dira honako hauek ere:

Ordenantza honetan deskribatutako jarduera bat egitea, dagokion administrazio-erregistroa egin ez bada.

Ordenantza honekin, aplikagarria den araudiarekin edo baimenetan jasotako baldintzekin bat etorritik, administrazioari eman beharreko dokumentazioa aurkezterakoan atzeratzea.

Astun gisa zerrendatutako arau-hausteren bat egitea, astuntzat jotzeko bezain handia edo garrantzitsua ez denean.

Hondakinen edukiontzia edo zakuak ez kentzea horretarako ezarritako epean.

Bide publikoan obrako materialak jartzea, hori egiteko baldintzak betetzen ez badira.

Gaitutako espazioak behar dituzten jarduerak gauzatzea, eta jarduera horiek ordenantza honetan ezarritako moduan ez egitea.

Materialak biltzeko ezarritakoa ez betetzea.

Ordenantza honetan edo baimenetan ageri diren baldintzetan ezarritakoa ez betetzea, arau-hauste hori astuntzat edo oso astuntzat jotzen ez denean.

30. artikulua. Zehapenak

1. Ezartzen diren zehapenek ez dute loturarik izango hirigintza- eta ingurumen-legezotasuna berrezartzeko neurriekin.

2. Halaber, zehapenak bat etorriko dira 22/2011 Legearen 47., 48., 52., 53., 54. eta 55. artikuluekin.

31. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa

1. Zehapenak 22/2011 Legearen 50. eta 51. artikuluetan ezarritakoaren arabera preskribatuko dira.

2. Lege horretan aipatzen diren arau-haustea honako epe hauetan preskribatuko dira, arau-haustea egin zenetik edo, kaltea berehalakoa ez bada, ingurumena kaltetu dela hautematen denetik zenbatzen hasita:

Arau-hauste arinak urtebetera preskribatuko dira.

Arau-hauste astunak hiru urtera preskribatuko dira.

Arau-hauste oso astunak bost urtera preskribatuko dira.

32. artikulua. Zenbatekoa

1. Aurreko artikuluetan aipatzen diren arau-haustea zehazteko, kontuan hartuko da zenbatekoa izan den subjektuen parte-hartzea, nahitasuna edo arduragabekeria urraketa egiteko unean, bai eta araua behin baino gehiagotan hautsi den, bidegabeko onura zenbatekoa izan den, eragindako kalteak eta galerak zenbatekoak diren eta eragindako kalteak zenbateraino konpon daitezkeen ere. Hirigintzaren arloko legediaren esparruan egindako arau-hausteez legedi horrek ezarritako zehapenak jasoko dituzte.

2. Arau-hauste arinak: 900,00 euro arteko isuna, hondakin arriskutsuak direnean salbu; kasu horretan, isuna 9.000,00 eurokoa izango da.

3. Arau-hauste astunak:

901,00 euro eta 45.000,00 euro bitarteko isuna, hondakin arriskutsuak direnean salbu; kasu horretan, isuna 9.001,00 euro eta 300.000,00 euro artekoa izango da.

Baimena kentzea edo etetea gehienez ere urtebetez, ordenantza honetako 28. artikuluko a), d), eta e) letretan adierazitako arau-hausteetarako.

Udal-ordenantza honetan zehazten diren jarduera guztiak egiteko debekua, gehienez ere urtebetez.

4. Arau-hauste oso astunak:

45.001,00 euro eta 1.750.000,00 euro bitarteko isuna, hondakin arriskutsuak direnean salbu; kasu horretan, isuna 300.001,00 euro eta 1.750.000,00 euro artekoa izango da.

Instalazioak behin-behinean edo behin betiko ixtea, guztiz edo zati batean, ordenantza honetako 27. artikuluko a), b), e), f) eta g) letretan adierazitako arau-hausteetarako.

Baimena kentzea edo etetea urtebete eta hamar urte arteko epe batez, ordenantza honetako 27. artikuluko a), b), e), f) eta g) letretan adierazitako arau-hausteetarako.

Udal-ordenantza honetan zehazten diren jarduera guztiak egiteko debekua, urtebete eta hamar urte arteko epe batez.

33. artikulua. Zehapen-prozedura eta publizitatea

1. Zehapen-prozedura eta horren publizitatea 22/2011 Legearen 50. eta 56. artikuluetan zehaztutakoaren arabera egingo dira.

2. Zehapenak jartzeko, lehenik zehapen-prozedura bat abiaraziko da, indarrean dagoen legediari jarraikiz.

3. Ordenantza honetan adierazitako arau-hauste astunak zigortzeko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde egokiei dagokie.

4. Udalak eskumena izango du arau-hauste arin eta astunak zigortzeko, Udalari dagozkion eskumenen arloan. Alkateak Erkidegoko administrazio-organo eskudunei proposatu ahal izango die zehapenak ezartzeko, Udalaren eskumenetik harago doan zehapen bat jartzea beharrezkoa dela uste duenean.

5. Ekintza bera bitan zigortzea ekiditeko, Udalak Ingurumen Sailari jakinaraziko dio zehapen-espeditente bat abiarazten eta ebazten denean, eta Ingurumen Sailak Udalari jakinaraziko dio gauza bera egiten duenean.

6. Kapitulu honetan adierazitako behin-behineko neurriek ez dute eraginik izango arlo zibil-leko zein zigor-arloko epaileek behin-behineko neurriak aplikatzeari buruz har ditzaketan erabakien gainean, zilegitasuna duten pertsonen dagozkien erantzukizunak erabiltzen dituztenean.

34. artikulua. Delituak eta faltak

Bideratutako administrazio-espeditenteak direla-eta hautematen bada espeditentea abiarazi zuen gertakarian delitu- edo falta-zantzuak daudela, zehapena jartzeko eskumena duen organoak horren berri emango dio Fiskaltzari, dagozkion erantzukizunak eska ditzan.

35. artikulua. Isun hertsatzaileak eta exekuzio subsidiarioa

Isun hertsatzaileak eta exekuzio subsidiarioa 22/2011 Legearen 55. artikuluan xedatutakoaren arabera izango dira.

36. artikulua. Behin-behineko neurriak

1. Behin-behineko neurriak 22/2011 Legearen 53. artikuluan xedatutakoaren arabera izango dira.

2. Behin zehapen-prozedura hasita, zigorra ezartzeko organo eskudunak honako behin-behineko neurri hauetakoren bat edo batzuk hartu eta agindu ahal izango ditu:

Kalte eragiten jarraitzea ekiditen duten zuzenketa-, segurtasun- edo kontrol-neurriak.

Aparatuak, ekipoak edo ibilgailuak zigilatzea.

Instalazioa aldi baterako ixtea, zati batean edo guztiz.

Enpresak jarduera egiteko duen baimena aldi baterako etetea.

3. Ezin izango da inolako behin-behineko neurririk hartu aurretik interesdunei entzunaldirako izapidea eman gabe, neurri horiek berehala hartu beharra dakarten premiazko arrazoiak dauden kasuetan salbu, gizakien osasunak edo ingurumenak kalte larriak jasan ditzakeen kasuetan edo lege honek arautzen duen jarduera bat bada eta ez bada horretarako baimenik eman, edo baimena iraungita edo etenda badago; kasu horietan, ezarritako behin-behineko neurria berrikusi, berretsi edo baliogabetu egingo da interesdunei entzunaldirako izapidea eman ondoren. Atal honetan aurreikusitako entzunaldirako izapidearen bitartez, interesdunei gehienez ere 15 eguneko epea emango zaie egoki deritzen alegazio, agiri edo informazio guztiak aurkezteko.

37. artikulua. Kalteak konpontzea eta kalte-ordainak ematea

Kalteen konpontzea eta kalte-ordainak 22/2011 Legearen 54. artikuluan adierazitakoaren arabera egingo dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa: Ordenantza indarrean sartuko da testua Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean osorik argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatuta, hamabost lanegunetako epean.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Auzitarako Salan. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

Aurrekoek gain egoki irizitako beste edozein errekurtsio ere aurkeztu ahal izango da.

Ozaeta, 2019ko otsailaren 19a

Alkatea

AFRO OLABE MTZ. DE ALBÉNIZ